

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2490

EBAZPENA, 2015eko maiatzaren 13koa, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearena, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko urriaren 15eko Aginduaren esparruan, 2014ko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzeko dena. Agindu horren bidez, iragartzen dira prozesuen alorreko berrikuntza proiektuen 2014ko deialdirako diru-laguntzak, urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren babesean. Dekretu hori Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan ikertzeko, garatzeko eta berritzeko laguntzei buruzkoa da (Berriker programa).

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko urriaren 15eko Aginduaren bidez iragartzen dira prozesuen alorreko berrikuntza proiektuen 2014ko deialdirako diru-laguntzak, urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren babesean. Dekretu hori Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan ikertzeko, garatzeko eta berritzeko laguntzei buruzkoa da (Berriker programa). Aipatu dekretuaren VI. kapituluari dagokio lerro hau.

Diru-laguntzak esleitu eta pertsona onuradunei dagokien ebazpena jakinarazi ondoren, publikotasun-ondorioetarako, EHAAn argitaratuko da aipatu xedapen horren babesean emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda, gai horietan eskumena duen sailburuordearen ebazpen bidez. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikulua 2. idatzi-zatiko bigarren atalak, eta urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren 14. artikulua 6. paragrafoak xedatuakoaren arabera egingo da hori guztia.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT

Argitaratzea, denek jakin dezaten, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko urriaren 15eko Aginduaren esparruan, 2014ko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda. Agindu horren bidez iragartzen dira prozesuen alorreko berrikuntza proiektuen 2014ko deialdirako diru-laguntzak, urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren babesean. Dekretu hori Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan ikertzeko, garatzeko eta berritzeko laguntzei buruzkoa da (Berriker programa). Aipatu dekretuaren VI. kapituluari dagokio lerro hau.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 13a.

Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea,
BITTOR OROZ IZAGIRRE.

ERANSKINA

Onuraduna	Proiektua	Eusko Jaurlaritzaren funtsak
Pan La Vitoriana S.A.U.	hidratatutako ogien elaborazioaren mekanizazioa eta automatizazioa.	225.710,83 €